

TRAFIKOA. Oposizino taldeek ordainketa sistema barriaren hutsuneak kritikatu ditue

Iñigo Bilbao |

Udalaren abogauek aztertu egingo dabe legezkoa dan edo ez TAO txartelik ez emotea isunak pagau barik dituen herritarrei. Horixe da Zirkulazino Saila egiten dabilena, ez bakarrik trafikoko isunak pagau ez dituenekin, baita etxeko konponketak dirala-eta Urigintza Sailagaz zorrak dituen herritarrekin be. Maria Isabel Sanchez zinegotziak atzo azaldu ebanez, ezer egin aurretik, abogauei berbaz itaundu eutsien eta hareek legezkoa dala esan eben.

Adierazpen horreek atzo goizean egin zituan Sanchezek, TAO sistema barriaren ganeko azalpenak emoteko oposizino taldeekin egindako batzarrean. Zirkulazino Saileko ardura-dunak aitortu eban «belu» ibili dirala ordainketa sistema egokitzeko: makinak ipini behar zituan enpresek ez ditu agindutako epeak bete, eta ezin izan eben kaminoko marraz aldazten hasi hilaren 12ra arte, hau da, sistema barriagaz hasteko egun bi baino falta ez ziranera arte.

Danetara, 85 kilometro marra margotuko ditue kaminoan. Oraindino ez dabe margotzen amaitu, eta esandakoaren arabera, Zirkulazino Sailekoek barrikurako amaitzea itxaroten dabe. Pintautako marra urdinetan 10.310 autoentzako lekua egin dabe, eta hor, gura dauenak muga barik itxi ahal izango dau autoa, hori bai, lehen baino gehiago ordainduta. Gune naranjetan, barriz, 3.915 plaza izango ditue lekuan lekuko egoiliarrek; eta amaitzeko, marroietan, autoa gehienez ordu bi izteko 2.586 plaza izango dira uriguneko kaminoetan.

Sanchezek aurreratu eban, ganera, garagarrietik aurrera egoiliarrek txartela atara behar

Isunak dituenen TAO txartela ez emotea legezkoa dan aztertuko dabe abogauek

Barikurako amaituko dabe kaminoko koloreetako marraz pintetan



LUIS JAUREGIALTZO/ARGAZKI PRESS

Herritarrek ez dituela TAO sistema barriaren ezaugarriak ondo aditu uste dabe oposizino taldeek.

izango dabela autoa euren auzoko gune marroietan aparke-tako. Zergaitik? Horrela udal agintariak jakin ahal izango dabe egoiliarrentzat auzo bako-txean gorde dituen gune naran-jak nahikoak diran edo gehiago ipini behar izango ete dituen.

Ibilgailu mistoekin be arazo-ak izan dira. Handiak izan arren, furgoneta modukoak, behar-re-rako erabiltzen ez diran monobo-lumenei txartela emon edo ez zalantzea euki dabe agintariak. Azkenean, ez emotea erabagi

dabe. Egoera horretan dagozan egoiliarrek alegazinoa ipini beharko dabe, eta egoera aztertu ostean, banan-banan emongo deusie TAO txartela.

Udaleko taldeak hasarre dagoz

Oposizino taldeek gogor egin eutsien Maria Isabel Sanchez. Batasunak eta EBk argi itxi eutsien ez dala bidezkoa Udal sistema barria martxan ipinteko gai izan ez danean, herritarrekin zorrotz jokatzeari. «Ezin dogu onartu isuna ipintea TAO pape-

ra ez ipinteagaitik, inguru horretan papera lortzeko makinarik ez dagoenean», gogoratu eutsan Julia Madrazok Sanchez.

Antonio Basagoiti popularrak, bestalde, TAO barria «bertan behera izteko» eskatu eutsan Iñaki Azkuna alkateari, bere ustez Udalak ez daudelako lortu jenteari sistema barria zelakoa dan azaltzea. Biharko udalbatzarrean, PPKmozino bat aurkeztuko dau dagoena atzera bota eta beste TAO bat egiteko prozedura hasteko.

UR PARTZUERGOA. Euren kritikei erantzuteko prentsan ipinitako iragarkia txarretsi dau Dimas Sañudok

Sozialistek epaitegian salatu dabe alkartea, ustez «prebarrikazino delitua» egin daudelako

I.B. |

Bilboko PSE-EEko zinegotziek salaketea ipini eben atzo goizean zaintzako epaitegian, Ur Partzuergoko arduradunen kontra. Dimas Sañudo bozeroaleak epaitegiko sarreran argitu ebanez, euren ustez alkarteko zuzendaritzak prebarrikazino delitua egin dau, «kritika politikoa egiteko diru publikoa erabili dabelako», nabarmendu eban.

Sañudok gogoratu ebanez, bere taldeak joan dan astean

egindako salaketeari erantzuteko, Ur Partzuergoak iragarkia argitaratu eban zapatuan, egunkari guztietan. Sañudok gogor txarretsi eban iragarkia, horrek argi izten daudelako bere ustez, EAJk ez dituela erakundeak eta alderdia bereizten, «eurentzat danak bardin bardinak dira».

Salaketea ez eze, sozialistek preminazko mozinoa aurkeztuko dabe gaur berton, bihar egingo dan udalbatzarrean aztertze-ko. Agiri horretan, PSE-EEko zinegotziek 1992. urteaz geroztik

Ur Partzuergoaren kontuak Herri Kontuen Epaitegiaren esku izteko proposatuko dabe, denpora horretan eroan daben ku-deaketea egokia izan dan edo ez ikusteko.

Horrezaz ganera, Ur Partzuergoak Argentinan egin dituan inbertsinoetan zulorik egon dan edo ez ikertzeko eskatuko dabe sozialistek. Amaitzeko, Iñaki Etxebarriaren dimisioa eskatzen dabe zinegotzi sozialistek, euren ustez bateraezina dalako Partzuergo-

ko lehendakari izatea Ogasun Saileko zinegotzi karguagaz.

Iñaki Azkuna alkateak ez eutsen atzo kritika horreei erantzun gura izan, baina argi itxi eban berak ez dauela Etxebarria Ogasun Sailetik kenduko. Ur Partzuergoari jagokonez, barriz, «hor nik ez dot inor ipinten ez kentzen, hori ez da nire ardura», esan eban.

Sozialisten salaketearen ostean, PPK be antzeko zeozer egiteko asmoa daukala jakin eragin eban. Euren be premi-nazko mozinoa aurkeztu dabe gai horren inguruan. Azkunaren berbetan «hauteskunde kanpainea hasi dau dagoeneko».

UGAO

Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoen emonaldia bertan behera izteko eskatu dau PPK

Erredakzioa |

Elena Garcia PPko zinegotziak Euskal Astearen barruan biharko antolatu daben Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoen emonaldia kentzeko eskatu eban atzo Udaletxean aurkeztutako agiri baten bidez. Popularrak gogoratu dauenez, pailazoetako bat Batasuneko zinegotzia da, eta ETAK Froilan Elexpe zinegotzia hil ebanean, ez eban ekintzea salatu.

Hori ikusita, «guk, geure herrian egin geinken gixienekoa pertsona horrek gure seme-alaben aurrean ezer egitea galera-zotea da», esan eban Garcia salaketan.

PPkoen ustez ez dago atxakirik, eta alkateak ezin dau esan egitaraua dagoeneko zarratuta dagoenik: «Lotsagarria da bizitzeko eskubidea onartzen ez dabenak herritarren diruagaz kontratetea».

EKONOMIA

Frankiziak bultzatzeko kanpaina egingo dau DEMA alkarteak

Erredakzioa |

Enpresen garapenaren aldeko alkarteak, DEMAK, Frankiziatu izeneko programea ipiniko dau martxan, enpresea frankizia bihurtu gura dabenei laguntasunak emoteko. Horren barri Sabin Arana Enplegu eta Trebakuntza diputauak eta Luis Fernando alkarteko ardura-dunak emon dabe.

Aranak azaldu dauenez, enpresa barriak sortzen diranean agertzen diran arriskuak kontutan hartuta, esperientziak erakusten dau frankizien alorrean zabaltzen diran hamar negozioetatik zortzik egiten dabela aurrera, eta hori asko dala nabarmendu dau diputauak.

Sektorea bultzatzeko, gaur egun Bizkaian zein egoeratan dagoen aztertuko dau lehenengo eta behin DEMAK.